Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Tomas Laskurain Zabaleta

Antzuola, Gipuzkoa (1922-2006)

Aurkibidea

Biografia

Lizarraga auzoko Lamarianoazpikoa baserrian jaiotakoa 1922an. Baserriko lanak oso ongi ezagutzen zituen eta azalpen sakon eta zehatzak eman zituen horien gainean.

Zintak

ANT-008

- **Proiektua**: Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Laskurain, Maripi
- **Data**:
- **Iraupena**: 55 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

ANT-009

- **Proiektua**: Antzuolako ahozko ondarea

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Laskurain, Maripi
- **Data**:
- **Iraupena**: 16 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

ANT-037

- **Proiektua**: Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Laskurain, Maripi
- **Data**: 1996-10-10
- **Iraupena**: 90 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Elortza, Kepa

ANT-038

- **Proiektua**: Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Jone
- **Data**:
- **Iraupena**: 15 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

ANT-039

- **Proiektua**: Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Laskurain, Maripi
- **Data**:
- **Iraupena**: 80 min
- **Euskarria**: Audio Analog

Pasarteak

1. Baserriko bizimodua

- **Erref**: ANT-008/001
- **Iraupena**: 0:05:10. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:05:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:
Baserriko lanak. Garia, artoa, baba, patata. Lana nola egiten zen. Abereak: behiak, ardiak. Beraien baserria aurrera irten izanaren arrazoiak.

Transkripzioa
- Garixa, artua, babia, patatia... danak hartzen giñutzen. Eta nola ondo lana eitten giñuan, sahats askokin ta, ondo, lana, ondo eitten giñuan lurrian, hartu be, sail txikixak dia, baiña hartu be asko eitten giñuan. Bai artua, bai garixa ta bai babia. [Hartu] ondo eitten giñuan. Bai, ondo, ondo.

- Eta noiz laga ziñuen, ba, garixa [...]?
- Ez, [...] horrez aparte, ganauak eukitzen giñutzen lau behi. Lau behi horrek izeten zien, ba, txahalak, okelarako hazteko. Eren esniakin hazten zien lehenengo sei bat hillebetien. Nola guk ez giñuan esnerik saltzen... Eta txahaleri emonda geratzen zanien esnioi, geure familixako konsumora, zeatik [guretako] familixetan esne asko gastatzen zan, bai almortzua edo postre edo... esnia gauza ona, ta etxekua nola zan, ba... Hori asko gastatzen zan. Ta gero, lau behi, urtian, badakizu, normala dan bezela, suerte danekin, txahal bat. Eta lau txahal izeten zian. Ta urtian saltzen giñutzen. Gauzak, behixak, ondo [eukitta]. Eta gero, beste berrogei-berrogeta hamar ardi hor eukitzen giñutzen.
- Eta nun? Hemen bertan ala mendixan?
- Bai, hementxe basarrixan. Dana basarri hontatik ez, erosi ein bihar izeten giñuan pastua neguan ardi horrendako. Sail txikixak dia honek eta, erosi ein bihar izeten giñuan. Guk ebali giñuan urte askuan artaldia Iraetatik erosi giñuan. Aurretik gurian ez zan ardirik. Baiña oin dala hirurogei urte, -- ez, oindik hirurogei ez, berrogeta hamabost urte-- ez zan ardirik, eta gu familixa haundixa nola etorri giñan, ta mutil gaztia tamaiño onekuak genden anaiak, ba, orduan, Iraetako artaldia erosi giñuan. Eta artalde ona tokau jakun, produkziño oneko artaldia. Eta gure familixan, aurretik, estu samar bizi giñan. Esan doten behi ta lurreko jenero horrekin bakarrik bastante estu bizi giñan. Baiña artalde hori, berrogeta ardixak erosi giñutzenian, ta hain artalde ona tokau jakun, eta gero neguan, Iraetako basarriko bertako pastuekin segi giñuan. Haura izen zan, gaiñera, laguntasuna haundixa! Geuk be bai, e? Pastu haren aldera, Iraeta zan basarri bat Gipuzkoatik aurrenengotakua, danera dedikatzen zana: piñura, zerria bazeukan etxian, zerra-[zintia orduko], ganaderixa bikaiña, labrantzia be hemen iñok hartzen ebanik, arto ta gari gehixen hartzen zebana... Ta hala, guri harek emoten zoskun negu danerako ardi-jana, pastua. Eta horren ordaiñez, arreglatzen giñan, gu, mutil gaztiok, batez be ni izan nitzan, Iraetan, orduan, lan asko ein neban. Ni Iraetan ibiltzen nitzan negu gehixenian, pastuen aldera ordaintzen. Ta hor ondo arreglatzen giñan. Familixa ona zien guretako. Oso ondo arreglatzen giñan. Eta gure familixako salbaziño haundixa ardi horretxek ekarri zeben. Haundixa salbaziñua, e! Aurretik eskas zebizen. Ganauekin ta lurrakin bakarrik eskas zebizen, zeatik lehendik produkziño [baekuak zeren], sutarako egur puskat, baiña zeren haritzak, paguak, gaztaiñak eta danak erdi ustelduta. Danak erdi ustelduta. Eta gaiñera, arbola horretatik batzuk, gaztaiñiak, zumarrak, haritzak be bai, paguak... gaitza zeuken. Gaitza. Ta gaitzak galtzera, zahardadiak ez bakarrik, ez bada eze, gaitzak ekarri zittuan horrek galtzera. Eta halaxe, esan doten moduan, Iraetako artalde horrekin guk oso ondo aurrera urten giñuan. Ostiango lan dana lehen bezela ebalixaz. Eta, gaiñera, ardixa basarrixan laguntasun haundixa da; ez diru aldetik bakarrik. Zeatik? Sahatsetik be bai, e! Lurrandako ardi-sahatsa bezelakorik ez dao. Oso biherrekua da, batez be, [nik bat komentatziagatik], lur gogorrak diranetan. Hori ez dira berezko lurrak, e! Hemen esaten da askotan: "Han fulanok sorua bai ona!" Ez. Hemen ez dao, lur onik ez dao. Holako berezkorik ez dao. Hemen ona da, eitten jakon tamaiñoraiño da hemen hori soroori ona. Eta guk beti horixe ein dou. Beti ondo lagundu. Eta hor laguntasun hortan, ardixa izen da gauza bat asko salbau gaittuana bere sahatsakin.

2. Artaldeen inguruko azalpenak

- **Erref**: ANT-008/002

- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:05:10. **Bukatu**: 00:07:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Inguruko mendietan ardi gehiegi ibiltzen ziren. Bildotsa, oraingo aldean, beranduago jaiotzen zen. Ardiek asko sufritzen zuten. Bildotsak nola hazten zituzten. Batzuk saldu egiten ziren, beste batzuk artalderako lagatzen ziren, "urruxak".

Transkripzioa
Bai, ba, gaztaiak eitten giñutzen... orduan, bildotsak, Gabonetarako bildotsik ez giñuan eukitzen, zeatik uda txarra pasatzen zeben mendixan ardixak. Hemen, mendi hontan, hau, Gorla-mendi, Itsu-mendi, Elusu mendi hau, ardi gehixei ibiltzen zan. Udaberrirako egongo zan, baiña gose egoten zan terrenua. Gose. Eta uda antzekuak pixkat jotakuan, janik ez zan egoten, eta ardixak sufridu eitten zeban asko. Eta bildotsa etortzen zan oingo aldien berandu. Oin ondo kaso eitten jate, ta oin Gabonetarako igual bildotsak saltzeko dare ta urtian bi aldiz igual eitten dittue bildotsak. Baiña orduan ez zan holako [konturik]. Orduan gauza asko bai, baiña danak ezin ondo eruan. Eta, hala, bildotsok etortzen zian, ba, febrero... hor izeten zien bildotsak. Enero azken, febrero, hor izeten zien. Eta bildotsak, bai, aguro hazten giñutzen. Preso ipintzen giñutzen bildotsak, eta dana gauza sanotik, e! Artiriña emoten jaten. Zeatik bildotsa ez da geldi egoten tokixan, nahiz ta illunpian egon, [paretako morterua] jaten ez badabe, [...] zian. Eta hori ebitatziagaittik ipintzen gontsen arto-iriña, askan; beren askatxotan, arto-iriña. Eta arto-irin... haura jaten eben han, tokixan, preso zeren tokittan. Eta gero amen esniakin bildotsak hogei bat egunian, baiña demaseko bildots edarrak eitten zien. Eta kalidade onetaiko okelia izeten zan haura. Hala, hogei bat egun edo hogeta bost, dana dala, bildots horrek saldu. Lagatzen ziran bakar-bakarrik, aurrerako artaldia mantentzeko, ba, zortzi bat-edo, urruxak esaten jakonak lagatzen zien. Eta, hala, geiñetikua saldu edo jaztia, ardixak jaztia. Ta ardi-jaztia izeten zan hemen, ba, San Josetan hasten bagiñan, San Josetan hasten bagiñan, hortxe... San Pedro ingurura arte. Bai. San Martzialetan gatzatua urtero jaten zan. Bai. San Pedro partera izeten zan jaztiori, eta orduantxe gaztaiak eitten zien.

3. Gaztagintza

- **Erref**: ANT-008/003
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:07:30. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Gaztaiak nola egiten zituzten. Gaztaiak egiteko beharrezkoak diren tresnak, azpiegitura.

Transkripzioa
- Eta gaztaiak, --akaso geure burua gehixei abonatzia izengo da--, baiña gure gaztaiak sekulako estimaziñua eukitzen zeben. Gurian amak jakin zeban gaztaiak eitten, baiña primerakuak, e! Oso, oso estimaziño haundixa eukitzen eben gure gaztaiak. Eta ez amak bakarrik, amagandik ikasi zeban Klaritak be bai. Klaritak be gaztaiak eitten dittu, oindio pazientzia gehixao gure amak baiño, eta ixa berari irabazi ein jao gure Klaritak gaztaiak onak eitten.
- Bai, asko ein dittu, ezta?
- Asko. Zeatik gero, ardixak kendutzian, geratu giñan ardi barik, ta zeozertara [...] bihar zan ta euki giñutzen lau behi. Dinamarkatik ekarrittako baten jatorrixa zian; danesas ziran horrek, ta esne askokuak zian. Ta orduan zihero dedikau giñan, ba, nik ganauak gobernau ta esniak ekarri sukaldera, ta gure Klaritak sukaldien gaztaiak ein. Eta egunian, ba, ekin gontsan bost gaztai behi esniakin [eindakuak]. Baiña oso kalidade oneko esnia zeukan harek behi dinamarkar harek. Eta, halaxe, gaztaiak, baiña oso, oso onak. Juaten zan plazara gaztaiekin ta eukitzen zeban tamaiño hartako estimaziñua, ya bera be pentsatzen zeban askotan jan ein bihar zebela.
- Ta gaztaia eitteko trastiak-eta ondio hemen dauzkatzue?
- Prentsia guk euki giñuan, baiña urte asko zeukan ta zerenak jo zeban ta apurtu ein zan. Puntura arte egon dia, e? Puntura arte egon dia. Ondio horrek zihero ezkutau dittugula denpora gutxi da. Baiña zerenak jota zeuan. Ta nola pisuak-eta ipini bihar jakon, prentsan estutzeko harri batzuk ipintzen jakon, estutzeko, ba, pisuari eusteko ez zien gauza prentsa horrek, ta trabarako bestetarako ez zeuan ta ya kendu [zan]. Bai. Baiña dana eitten zan eskuz, e! Dana zan, hola, erderaz esaten jakon... "artesanía pura" zan. "Artesanía pura" zan. Gaztaiak lana asko dauka. Asko dauka, ta, gaiñera, kontinuidadia biher dau, erderaz esanda. Gaztaia, eittia bakarrik ez da. Ta parajia be beretako modukua komeni jako. Edozein baserri-etxe ez da, pentsatzen dot, gaztaiandako. Biher dau baserri-etxiek euki deixela, hola, lokal batzuk hotz-beruek gorabehera gutxi ebaliko dabenak. Entenditzen dozu? [Beti izen] deilla udan freskua. Udan freskua izen deilla, zeatik gaztaia beruak udan hondatu eitten dau. Hori ez dau bihar gaztaiak. Gaztaia konserbau bihar da freskua. Ta gero, ba, gaztai danari eitten jako, sekatzen dan denporan, nola humedadia eukitzen daben, ba, lizuna eitten jako. Eta lizun hori, garbittu ein biher izeten dia gaztaiak. Egun bittatik gaztai danak ur epeletan garbittu ta gero sekatu atzera eren lekutan ipintzeko. Eta horrek garbittasunorrek ekartzen jaue gero azala, azal fintzia, azala eittia. Zenbat eta garbittu gehixao emoten jakon gaztaiari, azal fiñaua eitten jako ta azal edarraua eukitzen dau gaztaiak. Bueno, holaxe.
- Hementxe eukitzen zittuan, ezta?
- Bai. Hau oso... gure etxia oso ona zan gaztaiendako, e? Oso, oso ona. Guk hortan, hori euki giñuan. Beste alde batzuetarako ez zan egokixa. Soluan lana eitteko neke askoko etxia zan, zeatik basarrixa goixan ta terrenuak behian, ta aldapa haundixak eta horrek danok. Baiña beste alde batzuetarako bere bentajak euki dittu.

4. Baserriaren ezaugarriak

- **Erref**: ANT-008/004
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:11:10. **Bukatu**: 00:13:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Soroan lan egiteko neke handiko baserria zen beraiena; aldapa handiak zituen. Beraien baserria abereak hazteko, gaztaia egiteko... egokia zen, baina labrantzarako ez.

Transkripzioa
- Eta, gaiñera, aldapa haundixa, ez?
- Aldapa haundixa. Hau, nik... oin badia honezkeriok hogeta lau bat urte edo, hemen lehenengotako motokultore bat ekarri neban, traktore txiki bat. Halako bat urte izengo die haura ekarri nebala, ta artien hemen ez zan ikusten. Eta nik hari izena ipini notsan "matahombres".
- A, bai? Zegaittik, ba?
- Ba, aldapan neke haundixa emoten zebalako. Aldapan neke haundixa zeukan harek. Aldapan, bi gurpil zauzkan, eta zarpa formalak be ez zeuzkan artian. Gaur badare zarpa onak, baiña nik orduan artian, --ez zan ikusten ta-- ez neuzkan zarpa egokixak. Eta aldapan eustia izeten zan hari neke haundixa. Ta tratu txarrak hartzen zien aldapan harekin. Horrek erreminttaorrek, danak esango neuke neuk, neuk esperienzia txikixa, basarri egokixak eskatzen dittue, harendako modoko terrenuak eskatzen dittue, ta honek ez dia. Honek ganaua-edo, hori bai, baiña honek oin gaurko...
- Labratzeko ez?
- ... epokarako, labratzeko ez dia. Hemen, ba, ardixak edo larreko ganauak. Hori bai, baiña hemen labratzerik pentsau be ez! Pentsau be ez!
- Ta zer dia "zarbak" edo horrek, esan dozunak?
- Zarpak izaten dira, ba, gurpilletan [ezartzen jate...] oso praktikuak dare. Gurpilletan ezartzen jate, eta nola kubiertak baiño aurrerago eukitzen dittuen horrek puntak, zarpa horrek, lurrian horrek sartu eitten dia. Eta orduan, ba, traktoriak ez dau behera eitten. Bestela, aldapan, nahikua izaten da bedar [garga] bat, torto bat harrapatzia haren gaiñian "zat!". Zu bazoiaz zohixa eitten-eitten, ta ihes eitten dotsu, zeure [neke daneaittik] ihes eitten dotsu, tratorian behera ihes eitten dotsu. Ta zarpa horrekin ez, zarpa horrekin ondo. Baiña artian, nik euki nittuan zarpa batzuk neure kabuz einddako batzuk, baiña oso astunak zian, ta baldarrak zian. Ez neban euki. Ez neban euki zarpa formalik ez neban...

5. Bidegintza

- **Erref**: ANT-008/005
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:15:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Bideak eskuz egin zituzten. Harria ateratzeko, dinamita erabiltzen zuten. Neguan egiten zituzten bide horiek, baserrian lan gutxiago egoten zen garaian. 7 urteko lana izan zen.

Transkripzioa
- Orduan artian nola hemen ez zeuan ez kamiñoik, bakarrik pistak, eskuz ebai giñutzen honek. Hasi han, Larrebarren, beheko errotan hasi eta geure etxetaraiño danak eskuz. Danak eskuz ein zien!
- Eta pikua hartu ta palia hartu ta...
- Piku eta pala, bai. Eta, gaiñera, enkatxua ein jakuen harrixakin, ta harrixa kanteran. Eta kantero formalak einda ibili giñan gaiñera, e! Orduan ez zeuan gaur bezelako zerik. Juten giñan muniziño eske Guardia Zibilleana Bergarara eta geuk nahi giñuan muniziñua konsegitzen giñuan. Emoten zoskuen dinamita, emoten zoskuen harrixa kanteran geuk etaratzeko. Eta, halaxe, geuk pistoletekin eta porriakin, --pistoletekin eta porriakin, e!--[zuluak] ein, kargau dinamita eta geuk jaurtitzen giñutzen tiruak eta harrixa etaratzen giñuan. Eta harri haura dana, batetik, izeten zan kamiñua zabaltzeko eta, bestetik, balio izeten zoskun, ba, gero kamiñuari enkatxua, zorua eitteko. Ta horrek bideorrek kostau jakun guri, ba, [nik dakit], sei edo zazpi bat urtetako neguak. Udan, ba, basarrixari atendidu bihar izeten jakon, baiña neguan etxian geratu andria ta besten bat lanak eitteko, ardixen jirarako ta gizon bat, behintzat, juaten giñan horrek pistaorrek...
- Baiña auzoko basarri guztietatik bat edo beste?
- Bai.
- Eta egualdi txarrakin?
- Bai, bai. Edurrakin be bai, e? Ibilitta gare, ba, oinbeteko edurra, aterri goittik, ezta? Baiña oinbeteko edurra. Kendu, eta ibilitta gare kanteran ta bai lurrian, pistia ebaitzen.

6. Bidegintza

- **Erref**: ANT-008/006
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:15:20. **Bukatu**: 00:18:57
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Bideak egiteko soroak ez ziren ikutu ere egiten. Idiak beharrezkoak baserriko lan desberdinetarako: egurra eramateko; lurreko lanak egiteko... Bideak egiteko azken urteotan laguntasun handia erakundeetatik. Bide klase desberdinak: porlanezkoak... Bakoitzaren berezitasunak.

Transkripzioa
- Eta hau pista hau nun [ebai] zan, lehen zeuan bidetik, ala...?
- Ez, ez, ez.
- Berri-berri eitten zan...
- [...] lehen bidiak oso txarrak zian. Zuzen-zuzenian [jaisten] giñan. Orduan lurra beitzen jakon, soruai beitzen jakon. Orduan sorua ikutu barik ein bihar izeten zien bidiak. Eta oso-oso-oso... baiña bide txarretaikuak. Ibilli ezindako moduko bidiak zien harek. Horreatik euki bihar izaten giñutzen

lehen esan doten behixez ta ardixez aparte, idi pare bat ona etxe danetan euki bihar izeten giñuan, ba, sutarako egurra ekarri ta lurreko lanak ein ta... Horixe. Kalera egurra be eruaten giñuan. Pixkat. Asko ez zan [eruaten] baiña... Burdikada batzuk saldu eitten zien kalera orduan, [paga-egurra]. Eta gero, ba, biher izeten zan lastua edo, beti etxekuakin ez giñan aillegatzen. Pentsua-edo biher izeten zan. Eta idi onak euki arren, lehengo bide horretan gurera aillegatzia kostatzen zan. Kostatzen zan gurera aillegatzia! Hori pisu haundirik hartu barik, e! Zeatik burdixa hutsik be, leku askotan, nahikua izeten zan behetik gora egoten zien lokatza-zuluekin ta maillekin nahikua izaten zan idi onendako burdixa hutsik. Eta karga haundirik ezin ebali bide haretan. Haura kalbarixo gogorra zan! Gogorra zan kalbarixua! Baiña guk orduan […] giñuan; kosta zan, eskuz, […]. Gero makinak be azaldu zian, eskabadorak. Guk einddakua, ba, aukeran, puntu askotan estua zan. Eskabadora horrek gehixao zabaldu ein zittuan eta mejorau, mejorau eskuz eginddako bidiak. Eta gero, oin azkenengo, ba, eskarrikasko, herriko... egon dian gizoneri aurreratu dialako ta akordu apartekua euki dabelako hemengo basarrixekin. Ta bai eskerrik asko diputaziñua eta gobierno baskuari, zeatik laguntasun haundi bat danon artian ekarri zoskuen eskura. Eta horren bidez danak [enbreau...]. Geu sakrifiziua ipinitta geure aldetik. Baiña bestela ezin zeikian lan bat, horretxek milloe pilla edarra Antzuolara ekarri oskuelako ein zian bi auzotara, behintzat, bidiak. Oin, harrezkeriok beste... orduen ein [ez dako] askotara ein dittue Antzuolan. Eta oin porlanakin eitten dittue, baiña guriak enbreauak zien.
- Eta hobia da enbreaua ala bestia?
- Nik uste dot kotxiendako hobia dala enbreaua. Neuk uste, e! Zeatik enbreaua suabia da. Enbreauak ez dauka porlanak daukan bezelako hori bibraziño hori ez jao emoten behikuluari. Hori ez jao emoten. Oin, porlana ondo... base onan gaiñian ipinitta baldin badao, urte gehixaorako eta [karga...]... --piñu asko dao, piñu asko dao oin--. Lehen esan dot, paguak eta gaztaiñak eta haritzak eta usteldu ein ziala. Zaharrak zian ta harek bota zian.

7. Lehenengo pinuak Oñatin

- **Erref**: ANT-008/007
- **Iraupena**: 0:07:39. **Hasi**: 00:18:57. **Bukatu**: 00:26:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Inguru osoan lehenengo pinuak Oñatira ekarri ziren Mexikotik. Antzuola inguruan pinuak 1950. urtetik aurrera. Oso onuragarria ez baserritarrentzat bakarrik, baita Euskal Herriko ekonomiaren garapenerako ere. Bertako basoak.

Transkripzioa
Oin urte asko, oin ehun ta urtiak Oñatira lehelengo piñua etorri zala. Baiña hemen inguruetan herririk aberatsena jarri zan Oñati piñudixekin. Esaten dabe Mejikotik ekarri horra piñuak ta Mejikon bertan baiño hobeto irabazten zebela piñu horrek. Piñu hori bertan egokixao jarri zala Mejikon baiño. Bai, bai. Ikusten zan, ejenplo hori ikusten zan Oñatin ta ikusten zan.

Ta ya handik poliki-poliki hasi zan landaria etortzen, [...] hasi zian landaria etaratzen ta... Nola ez? Zu, nahiz ta hogeta hamar urte euki, zeure denporan, hogeta bost [urtegarrengo] piñu haura, material haura aprobetxau [ein leikian].
- Eta hori oin dala zenbat urte izengo zan?
- Ba, [hor], kontu hori dala... Kontu horrek lehelengo-lehelengo oin berrogeta bost bat urte. Honutz berrogeta bost urte ingurutik hasi zan hemen lehenengo piñua. Aurretik ez zan hemen bate piñurik. Lehen esan dotena, pago zaharrak, gaztaiña zaharrak eta haritzak. Horrek zian hemenguak. Eta gero, orduan, horrek usteldu ta ikusi zanian ya horren azkena, izan zan piñua. Eta piñu horrek basarrittarrai asko lagundu jao. Baiña, nik uste, basarrittarrendako aiña edo gehixao igual izen dala hori Euskal Herrirako. Euskal [Herrirako] daukat entzuera bat daukat, "setenta mil millones". Hementxe buelta haundirik barik, e? Zeindda mendi tontorrera ixo ta ikusteko moduko buelta bat ein dabe horrek danak. Eta hori bada aberastasuna. Piñua izan ez balitz, ez zan ezer egongo. Eta hori bada aberastasuna. Eta horrek lan asko emoten dau. Basarrittarrai lehenengo pezeta batzuk, baiña bai gero zerrarixei be. Eta aber zenbatek lan eitten daben mendittan, zerretan eta hortik gaiñera ta gaiñera. Horreatik, piñuak hemen bizimodu haundixa ekarri dau. Oin, nik esango neuke, klaro, hemen ez dou euki erakuslerik be, ta nik esango neuke, itsutuei be epoka baten eindda egon garala. Gaur egun hasi da pixka-pixkat beitzen, baiña denpora baten, esango neuke, itsutuei eindda egon garala hemen, zeatik esaten zan ya [...] sukaldien be piñua. Sukaldien be piñua. Ta hala zan. Etxe ondo-ondoraiño askok eta askok ipiñi dau. Eta hori neuk esango neuke ez [dakitela], baiña neri pentsatzen jat zonak bihar liekiala. Etxe ingurutan ez, behintzat. Eta herri inguruan be ez. Gero handik aparte, bai, zeatik piñua da gauza bat terrenorik pobrienian, terrenorik pobrienian, beste ezek be, arantziak eta zikiñak, laharrak, otiak bakarrik irabazten daben lekuan, piñua da bakarra egurrak irabazten dabena. Egon dia kasuak, e? Ni Iraetan nenguan orduan. Lehen esan doten moduan, hango lanak eitten ibiltzen nitzan. Ta Iraetako Luis difuntua azkarra zan. Hemen izan dan basarri-gizonik azkarrenetakua zan. Baiña onak bezela pusketa batzuk terreno txarrak be bazeuzkan. Eta ibillitta gare, harrixa besterik ez, haitz-bakar mendixa, harrixa besterik ez, ezin piñurik iñun katiau. Eta [... txarrenekin] urriñao batetik ekarri lurra eta sartu han, geuk ekarrittako lurrian sartu piñua eta piñudi majua ein zan. Guk ipinittako piñu harek oin dala hogeta urtiak saldu zian. Eta dineral edarra batenbatzuk aprobetxau zeben. Luisek ez, gizajuak. Baiña Iraetarren batzuk dineral majuak aprobetxau zittuen. Eta oin bigarren piñudixa berriz be ya botatzeko preparauta bezela dao.
- Eta nun dao hori? Haitz-bakar. Iraetan dare horrek. Iraeta, Antzuolan lehelengo piñudixak euki zittuana Oñatin hurrengo, Iraeta izan zan. Eta Iraetako terrenuetan... Nere kontu honek dia nik hemezortzi urte nittuanekuak, e? Nik hemezortzi urte nittuaneko kontuak. Ta oin hirurogeta bost dauzkat. Ba, bigarren tandia, ya lehenengua bota zan oin dala hogeta urtiak, ta bigarrenakin botatzeko gertauta dare. Asike kontua [eizu zuk] ez dan aberastasuna gizonak bere bizitzan bi -terreno baten- bi piñudi bota-aldi ein leizke. Ta paguak-ta, bai, paguak-ta horrek, haritza ta horrek, pagua-ta horrek onak dia, baiña haura ez da ez zuretako, ez zure umiandako ta erderaz esaten daben moduan: "para las [...]". Horixe dauko. Oin, hori be galdu ez dou ein bihar, e? Galdu, euskaldunok, ez dou hori galdu bihar, e! Horri be bere leku batzuk emon bihar jao. Beretako moduko lekuak badare ta emon bihar jao horri be leku batzuk. Nik neuk, ba, ointxe nabil konsegidu ezindda, zeatik oin ez dao landararik, pago-landararik eta holakoik. Gutxi dao oin. Ez dao! [Normalian], lurrak berez emoten dau. Eta

daukat zati txiki bat -danera berrogei landara-- eta noia pagua ipintzera. Bueno, pagua usteldu, zaharrak ein zian ta usteldu egin zian, ta bota ein giñuan. Eta oin berriz be pagua ipintzera noia. Nahi dot etxian segi deixela. Piñua gehixao, piñua bai, piñua [...], baiña pagua be puskat [egon deilla].
- Eta oin haritz amerikanua eta ipintzen da asko...
- Bai, oin haritz amerikanua be... Oin beittu ein bihar jako, ezta? Dana. Kalian ta basarrixan ta beittu biharra dao, "crecimiento rápido". Beittu biharra dao. Oin ez da lehengo moduan. Lehen dirurik ez giñuan biher izeten. Lehen diru gutxi biher izeten giñuan oso. Horreatik, lan asko ein ta, ba, trankil bizi giñan. Baiña gaur ez da hola. Gaur dirua bihar da. Eta dirua nundik? Eta basua plantau... Beittu ein bihar dau ze etorriko jakon lehenbailehen. Eta haritz amerikanua piñua bezelaxe etortzen da. Ta egur oso ona da, kalidade haundiko egurra da haritz amerikanua, eta irabazi ondo eitten dau. Eta ni neu, etxeko lurretan, piñuan hurrengo, oso-oso partidarixo nao haritz amerikanua ipintzeko. Oso partidarixo.
- Laster botatzeko daukazu zuk be ala?
- Ez, guk ez daukau hola botatzeko piñurik. Gaiñera, hau piñu [...] beltza gutxi daukau, ta bestia be ez asko, baiña alerzia. Baiña alerziak urte asko bihar dau. Alerziak berrogei urtetik gora bihar dittu. Hori [...], berrogeta bost-berrogeta hamar urte bihar dittu alerziak. Eta gure alerziak ondio, ba, daren pusketak be gutxi dira ta hogeta hamar urte dauzke. Guk ez daukau, [basotik] ez daukau hola... guk ez daukau oin hola basotik [...].

8. Bidegintza

- **Erref**: ANT-008/008
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:26:36. **Bukatu**: 00:29:37
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Bidegintza. 1960 ingurutik aurrera aldaketa nabarmena Antzuolan. Kalean gero eta lan gehiago; baserritar asko kalera lanera. Bideak egiteko beharra. Bizimodu aldaketa; baserriaren etorkizuna.

Transkripzioa
- Eta hemen be --lehen bidegintzia ta esan dozu ta-- hemen, zuen zelaia goittik pasatzen da, ba, bidia, ez?
- Klaro.
- Horrek kalte haundixa [ekarriko zotsuen]...
- Bai, berrixa ein giñuan. Bai, baiña ya ikusten giñuan, ikusten giñuan ya hemen bazetorrela ganbixua. Ikusten zan, zeatik kalian lana hasi zan. Hemen "sesenta" edo... "cincuenta y ocho, sesenta" edo, kalia [...] mobidu zan. Eta kalian dirua irabazi eitten zan, ta basarrixan lana ta lana ta lana ta dirurik ezin giñuan etara. Ta kalian dirua zebillen. Orduak be sartzeko aukeria zeuan. Hemengo jentia beti izen da langillia, eta orduak sartzen zien, eta orduan dirua [...]. Eta hori ikustiaz gaiñera, ba, geu be gauzak aurrerago begira hasi giñan. Bidia komeni jakun, ta bidiak, ba, ezin zeizken lehenguak arreglau, ta orduan, ba, jo giñuan sorotatik. Automobilla edo behikulua, esperantzak hartu zian, zeatik horrek be hasi zian azaltzen lehen ez bezela, ta esperantzak hasi zian. Ta, hala, sororik onen-

onenetatik, gurian be dao sororik onen-onenian, kruzau zan pista hori --ya gaur kamiñua. Bai. Holaxe. Kaleko diru-aukera horrek, basarrixa be jarri zan dana kalera begira. Basarrixan ez dao ez fin de semanaik, eta jaixa be... Bat egon leike basarrixan dantzarixa. Basarri bakoitzian bat egon leike dantzarixa, baiña batera bi edo hiru ezin leike egon. Lehengo moduan, e? Bat bai; bat nahikua da dantzarixa basarrixan. Eta, hala, kalian ikusten zan ta danak batera. Fin de semanan, ba, familixa dana juten zien, ba, kotxia hartu ta hara-hona; [danak libre ta basarrixan ez]. Basarrixan lana ta lana ta lana. Eta hori diferentziaori, laste akordau zan jentia hemen, ta jo zeban jentiak basarrixa laga eta kaleko fabriketara. Eta oingo basarrixa horretxek despedidu zeban. Bestela, gaur [...] Antzuolan be badare basarri onak eta basarrittik bakarrik bizi izeteko, bizimodua etaratzeko moduko basarrixak badare. Baiña honek hemen aldapetako basarri honek gaur bihar dan bezela diruakin, eta gaurko bizimodua etaratzeko ez dia allegatzen. Honek ez dia allegatzen. Baiña horretxek salbaziñua ekarri zeban, ta [...] horretxek salbau zeban. Oin dabitz, ba, jentia kalian lanian eta ganau batzuk. Batek eukiko dittu ardixak eukiko dittu bere basarrixan, beste batek eukiko dittu behixak... Eta behixak libre ez dabe hainbeste lan emoten; ardixak be ez. Eta gaiñontzian, kalian.

9. Ardiak

- **Erref**: ANT-008/009
- **Iraupena**: 0:25:23. **Hasi**: 00:29:37. **Bukatu**: 00:55:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Ardien inguruko azalpenak. Buzkantzak, ardi okela. Jatekoa baserrian.

Transkripzioa
- Ta ardixak, nola esan dozu lehen, zortzi-edo lagatzen ziala...
- Bai, bai...
- Eta izen bat esan dozu hor...
- Artaldia, badakizu, urtian, ba, zaharrenetatik kendu eitten zian. Horrek basarrixan ardi-okelia ta buskantza ta oso geuriak giñutzen. Txarrixa be... Hori be zenbat eta haundixaua nahixao, gaiñera; hamabi arrua baiño hamalaukua nahixao. Eta guretan ardixak salbaziño haundixa eukitzen zaben. Urtian, ba, lau-bost bat ardi etxerako hiltzen zien, familixia, etxerako hiltzen zien. Ta hemen buskantzak eitten zekixenak koziñera onak zien. Gure ama zan kozinera ona. Eta buskantzak eta ardi-okelia, ez oin bezela frigorifikokua! Lehenengo egunetan jango zan, ba, gisauta ta hola. Ta gero, geiñetikua zezeña eitten zan, zezeiña eitten zan. Zezeña da, ba, gatz-uretan, gatz-uretan ipintzen zan. Eta, ba, eukitzen zan egun pare batzutan gatz-uretan ta gatza hartzen zeban han, okela harek gatza hartzen zeban. Eta, hala, gero, sekatu eta jaso eitten zien horrek. Ta gero haura, ba, lapikokuan. Bai babak... Hemengo potaje printzipalena babia izan zan beti, ta nik uste dot bera dala, gaiñera, onenetaikua --behintzat, hemen mutil majuak hazten zien ta seiñale dao.

10. Txerriak

- **Erref**: ANT-008/010
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:18
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Txerriak izaten zituzten, baina txerrikia jatea komeni ez zitzaiela eta txerria hazteari utzi zioten.

Transkripzioa
- Eta txarrixa noiz laga ziñuen? Zeaittik ni ondio akordatzen naiz hona txarrixa hiltzera etortzen zianian.
- Bai. Ba, lehen esan dotena. Gu familixa haundixa izen giñen, baiña ya gero familixia, geuk ez giñuan asko euki ta anaiak-eta ezkondu zianian, ya bajau ein giñan. Eta [lagunetan] bi daren familixarako txarrixa hiltziak ez dau merezi, zeatik txarrixak ikutu asko eukitzen dau. Gero, bestetik, berriz, edadekuak, eta edadekuei gaztiendako ez dao txarrikixa. [...], jan biharrekua, gaiñera, gaztiak txarrikixa, jan biharrekua. Baiña edadeko personendako ez dot neuk... Ta [...] geuk nola ez giñuan, ya ez giñutzen... ez jakun komeni txarrikirik, ta gero familixarik ez geunkan, hortara, laga ein gontsan. Ta apurka-apurka juan gara puskat kale antzeko bizimodua [eitten] jun gara. Geu zahartu gara ta...

11. Bizimodu aldaketa

- **Erref**: ANT-008/011
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:01:18. **Bukatu**: 00:03:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Bizimodu aldaketa. Bizitzarekiko duen ikuspegia.

Transkripzioa
- Eta hobeto? Gustora kalian? Kaleko lanakin...
- Nik neure esperienzia esango dotsut. Bakoitzak berak ikusi bihar dau hori. Ez gara danok igualak be, hori bakoitzak berak ikusi bihar dau. Baiña nik esango neuke, nahiz gizona edo emakumia, bere zahartzarora allegatzen danian, jubilatzeko edadia allegatzen jakonian, ba, lehen usau daben inguru haretan... Ya lanei lagata, e! Ya obligaziñorik ez. Ya behin edade batera ezkero lanari laga ein bihar jako. Badare kasuak ointxe be, jubilauta ta artian basarrixan lanian baiña lehen-lehen bezelaxe. Gaur ez dot pentsatzen. Gu zaharrok, bigunagatik, behintzat, [...] nezesidade [bat danik]. Baiña badare basarrixak ondio hirurogeta zortzi-bederetzi urte ta hamar-ta, baiña lanian [...] dabitzenak. Hori bakoitzak ikusi bihar dau. Hori ez da beti [...]. Baiña bai inguru hortan, berak usau edo bizi izen dan inguru horretan zahartzarua gauza edarra da. Lanik barik; entretenitzeko lain bakarrik. Eta bere inguru haren jabetasun haura ikusixaz, haren

zerakin, oso-oso zahartzaro entretenigarri haundixa dao. Nik kalia probau dot, kalia probau dot. Baiña gu, basarriko gizonok, lau paretak, lau baztarrak kalian belaxe jotzen dittuu, lau baztarrak segiduan jotzen dittuu, eske ya gehixao entretenitzen ohittuta gare. Ez gara ohittu gaztetatik zenbaten moduan jokuan be ez, ez gara ohittu deporte asuntuan be ez gara sartu. Bakarrik izen dou geure lana eta geure gorabeherak. Entenditzen dozu? Gehixen bat hori erabili dou. Eta falta horrek be kalian bizi izeteko asko eitten dau. Ta horreatik, ni neu, behintzat, askoz be hobeto bizi naiz lehen bizi izendako lekuan, hementxe, euzki alde hontan, neure animalitxuen inguruan eta hemen oso gustora, oso gustora bizi naiz! Geiñera, nik nere barruan poza sentitzen dot, oso pozik sentitzen naiz. Gustuak dare ta bakoitzak hartu bihar dau berari komeni jakona. Danok igualak izaterik ez da komeni! Ez da komeni.

12. Fruta-arbolak

- **Erref**: ANT-008/012
- **Iraupena**: 0:04:37. **Hasi**: 00:03:50. **Bukatu**: 00:08:27
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Fruta-arbolak. Sasoi batean sagardoa egiten zen baserri gehienetan. Dolareak. Sagardotegiak.

Transkripzioa
- Eta fruta-arbolak be hemen badauzkatzue batzuk, baiña lehen gehixao izeten zan oin baiño.
- Bai. Gure gazte-denporan hemen fruta asko zan. Asko zan frutia. Ez dot esaten kalidadia... gaur ipintzen dian landaretan, biharbada egongo da, gauza batzutan, kalidade hobia. Goldenak eta honek ez, e? Goldenak-eta ez. Baiña basarriko frutak, hor, premixuak-eta hartzen dittue. Bai Santa Luziatan-ta ikusten dittut, eta ni ikaratuta egoten naiz, horrek, horrek etaratzen daben jenero hori hain da zoragarrixa, hain da ikusgarrixa...! Plazetan ikusten da premixuak etaratzen. Oso zoragarrixa da hori. Nik hortik ikusten dot gaur hobeto kaso eitten jatela fruteri, eta kalidadia be txarraua ez da izengo, hobia izengo da. Orduan asko-asko zeuan sardao-sagarra. Hemen etxe gehixenetan sardaua eitten zan orduan. Geuk be bai. Urtero eitten giñutzen, ba, laurehun bat litro edo. Geuk etxian ez geunkan dolaraik, baiña auzuan toki askotan zeren dolarak. Eta [ur]-sagarrakin sardaua, berrehuneko barrika pare bat, hori izeten zan. Eta sardaua, negu partien, gustora. Ondo. Ba, orduan hori zan. Frutia bai, baiña sardao-sagarra asko, kutxillo-sagarra gutxiao. Kutxillo-sagarra...
- Zein da hori?
- Orduan... Kutxillo-sagarra? Mahaiko sagarra. Sagar hori. Hori gutxiao zan. Orduan sagardotegixak be asko zeren. Hemen auzuan Bizkalatzan sagardotegixa ezautu ein dou, Lapatzan sagardotegixa ezautu ein dou, ta, orduan, Galardin ezautu ein dou, eta baitta Madarixan be ezautu ein dou sardaua. Ta ona, gaiñera, sardaua! Orduan etxe askotan sardaua saldu be eitten zan. Iraetan be bai. Ta, orduan, haura gaur be, gaur be, hor, badare,

lana eitten hasi dia. Ta nik uste dot gaur be hori [honako] oso egokixa izango litzakiala: sardaua. Hori ona da. Ta pentsatzen dot, hemendik -- hasitta dare diputaziñuak emoten dittuen landarak eta laguntasunak dare, ta--, pentsatzen dot hemendik hamar urtegarrengo hori hasiko dala. Baiña bueno, holaxe. Orduan zeuan keixia hemen ikaragarri, okarana be bai, madarixa be bai, hortaikua... Ta nik ez dakit, nik ez dakit ze pasatzen dan, baiña orduan urtero egoten zan ixa. Sagarra ez, sagarra ez zan izeten urtero be. Sagarra izen da, jeneralian, urte bat ona izeten bada, hurrengua pixkat eskasaua. Baiña handik edo gauza batetik edo bestetik frutia hemen izugarri [izaten zan]. Eta, halan, frutekin [...bezela], lehen esan douna arbolegatik. [Iguala pasau...], zahartu zian, edurrak apurtu, haiziak apurtu, ta geratu giñan fruta barik. Eta gu genden ointxe azkenengo urte hontan oso frutatik urtenda, e! Oso urtenda genden. Eta nik neure barruan beti kezka bat: geure gazte-denporan hainbeste fruta ikusi giñuan eta oin frutarik ez. Landara asko ipini dot nik, asko ipini dot landarak. Baiña nola ganaua larrian ibiltzen giñuan, mentauta izaten zian landara horrek eta horrek kuidao haundixa bihar izeten zeben. Hain, hain sentzilluak dia...! Eta ganau larrekuak apurtu eitten dittu. Ezin, ezin. Eta ointxe, juan daneko zazpi-zortzi urte hontan, neu fabrikan, kalian lanian hasi ezkeriokuan, hasi nitzan ipintzen ta ipintzen, eta ointxe bastante etorkizun oneko sagarrak, keixak, okaranak, madarixak eta danetik frutia. Ointxe bastante etorkizun... Nik uste dot, ba, ya hasi gara. Hasi gara. Probetxua kentzen be hasi gara, ta hamen lau-bost urtera, ba, defenditzeko beste eukiko doula ya horretatik, zegatik ondo gobernau eitten dia, ondo kaso eitten jate, ta kaso ein ezkero, fruta-landarak be ondo etortzen dia. Eta bai, ya gaiñian daukou etxeko frutia gaiñian dou.
- Bai, baiña bestela, jeneralian, gutxi ikusten da, e! Fruta-arbola gutxi ikusten da, ezta?
- Bai. Ganaua badabil, ba, hemen larrien? Lehen esan dot, ganaua dabil larrian, eta ganauak puskatu eitten dau. Ardixak tira, ardixak hainbeste ez, baiña ganau haundixak arbolia ta dana hondatu eitten dau. Horixe pasatzen da hemen. Ez dao hemen basarri batzuk holaxe dedikau dianak frutara. Itxitta dauzke frutal horrek, eta horretxek etarako dittue. Eta oin, ba, diputaziñotik buelta be badoia jentia sagastixak ipintzen, ta horrek, ba, itxiko dittue ta horrek zainttuko dittue. Eta urtengo dabe, urtengo dabe. Baiña ez dao, ez dao frutarik.

13. Fruta-arbolak

- **Erref**: ANT-008/013
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:08:27. **Bukatu**: 00:10:42
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Fruta-arbolak. Gaitzak. Urte batetik bestera gorabehera handiak. Meteorologia.

Transkripzioa
- Eta, bestela, gaitza-edo ez, ez jakuen sartuko, ez? Ze nik, hola, entzun dot, ba, beti oin arkua daukela sagarrak eta...

- Bai, hori... Udaberri txarrak. Udaberri txarrak doiaz ta. Orduan, ointxe bezelaxe, egualdixak izeten zittuan bere altu-bajuak: negu onak be bai, txarrak be bai. Oin baiño edur gehixao eitten zeban orduan, e! Lehen oin baiño edur gehixao eitten zeban, ta gero, nik uste dot udabarrixan, udabarri onauak izeten ziela oin baiño. Orduan udabarrixak onak eitten zittuan. Orduan hemen ipintzen giñuan ardixandako pasturako pagatxia, ta akordatzen naiz, alfafia ta horrek. Baiña abrillan lehelengotarako baiña haundi eindda, e! Haundi eindda! Eta frutiandako hori komeni da, udabarri ona komeni da. Lora-denporan, lora-denporan ez jako komeni busti ta hotz luze txarrik ez jako komeni. Eta hortik dator arkua; arkua hortik dator. Ta gero, ba, askok badihardu hemen hori eliminatzeko, arku hori lora-denporan, ta fulminau esaten jako. Fulminau eitten ditue. Ba, nik probau dot. Ez aliagatik, ez bada eze landarak, landarei zorri bat sortzen jate pujetan, puntetan. Eta ihertuko ez balia landara gazte honek danak, nabil urtian pare bat hiru bat aldiz fulminatzen. Baiña beneno-benenua da nik botatzen doten eta usatzen dan hori. Horrek danok benenua dia. Bai patatiari botatzen jakon... [...], horrek danak benenua dia. "Sulfato de cobre" ez, baiña hor ostian [dabitzenak] danak benenua dia. Eta askotan haizia kontrara edo, tragau eitten dozu haren lurruna edo zera, ta nik, nik neuk, notau izan dot, nobedadia notau izan dot. Eta ez dot [iñori] akonsejatzen horrekin... Berez etorri bihar badau, bien, hartu sagarra edo frutia edo... Baiña horrekin lan asko eittia ez da, ez da personiandako. Benenua, benenua dia.

14. Basoak; pinuak

- **Erref**: ANT-008/014
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:10:42. **Bukatu**: 00:14:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Inguruko basoak zelakoak. Pinuak lurra garbitzen laguntzen du. Bertako zuhaitzak zeintzuk. Pagoak, haritzak, gaztainak... berriz irteten hasi dira pinudi askotan. Pinuak lurra pobretzen duela eta horren inguruan berak pentsatzen duena.

Transkripzioa
- Gauza bat esan bihar dotsut. Lehen ibili gara hor bueltaka, piñua, lehengo pago zaharrak, gaztaiña zaharrak ta haritz zaharrak, ta ibili gara hor bueltaka, ta gero piñua sartu zan. Bueno, nik daukat esperientzia bat eta iñori oso gutxi entzundakua. Oso gutxi entzun jat. Ta badakizu zer dan? Ba, piñuak lurra saniau ein dabela, edo saniatzen daukala, lehengo jenero horrendako. Piñua izan ez balitz, lurra ez dakit saniauko zan berriz pagua ta gaztaiñia ta ipintzeko. Baiña oin bai. Piñuak lurra lehengo jenero horrendako saniau dau, zeatik gaur edozein piñudittan ikusten dozu -- edozeiñetan be ez, hori be asko esatia da, baiña-- toki askotan ikusten dozu piñudi haunditan, sortu dia pago-landarak, sortu dia haritz-landarak, sortu dia gaztaiña-landarak. Oseake lurra, lurra... lehen-lehen be gizonak ipinittakuak ez zian lehen-lehen, oin hirurehun urte-edo, ez zian lehen-lehen be gizonak ipinittakuak, ez bada eze lurrak berak emon zeban. E? Ta handik etorri zian zuhaitzak. Ba, oin, piñua botatzen dan denpora hontan,

neuri pentsatzen jat, lurra billauko dabela pagua ipini nahi dabenak, gaztaiñia ipini edo haritza ipini nahi dabenak billauko dabela saniauta. Hori ortu baten be badao aproba hori. Ortu baten zuk urtero leku baten ipintzen badozu gauza bat, edo patatia bada, edo edozein gauza, leku baten, beti leku baten, lur haura gauza danerako gaixotu eitten da. Eta mendixan horixe pasauta zeuan: lurra gaixotuta zeuan, bai gaztaiñiandako, ta bai haritzandako [...] gaixotuta zeuan. Oin piñuak saniau ein dau. Nik neuk daukat hori esperientzia hori.
- Baiña baitta entzuten da lurra pobretu eitten dabela ta [...]. Hori...?
- Ez, ez, ez, lurra pobretu ez. Lurra pobretuko baleu, aber... Lehen esan doten Iraetako kasua: bi piñudialdi berrogeta hamar urten barruan. Bi piñudialdi, e! Pobretuta baleo lurra, ez. Hor [dao] seiñale lurra [...]. Hori bigarren generua iguala, e! Asike, piñua balitza beste jenero diferente bat, [nere artian be] ikusten dot hobeto etorriko litzakiala. Ez, ez, horrek kontuak dia. Hemen piñua, hemen piñua, beste gauza asko bezelaxe, neuretako, biharrekua da, biharrekua da. Oin, bere zonak. Piñua ez da edozein lekutan ipini bihar. Bere zonak; danerako lain leku dao. Pagua juan bihar dan lekuan pagua, haritza juan bihar dan... lizarra juan bihar danian lizarra, ta piñudixan piñudixa. Hori bai. Hori izango litzake honako gauza edarra. Gauza hori ondo etorriko litzake hemen, klasifikau pixkat. Ta kale ingurutan ta etxe ingurutan-ta piñurik ez. Horrek ez dauka... zikiña, etxe ingurutarako gauza zera. Bistia kentzen dau, ta gero peztixia sortzen da, aizerixa dala, ta peztixia sortzen da, ta...

15. Basoko animaliak

- **Erref**: ANT-008/015
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:14:10. **Bukatu**: 00:17:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Fauna
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Basoan aurkitu daitezkeen animaliak: azeriak; basurdeak; katagorriak; satanderak.

Transkripzioa
- Oin ez da ageri aizerixa-ta asko hemen inguruan [...]...
- Ez, ez dao asko. Hemen ez dao asko. Bestela, dao kasua, gure goiko basarri honek ehun bat oillotik gora, horrek bai, lehengo moduan libre dauzka. Eta horrentzat, [hor goraiño] juaten dia, piñudi ondo-ondoraiño juaten dia, ta bai, noizpaitten baten bat galduko da, baiña ez littuzkie hola eukiko libre aizerixak balere. Ez littuzkie [lagako]. Ez, aizeri asko ez.
- Ta basurdiak be ez...
- Ez, ez. Horrek hemen puntun batzutan bakarren batzuk azaldu dia, ta badare, badare, basaurdiak badare. Baiña ez, hemen ez. Ez dot uste, ez dot uste.
- Oin, orduan, hemen, hemengo basotan, ze... holako animalirik egongo da? Zeoze... basakatuak edo holakuak egongo dia?
- Hortaiko banakia bai, hortaiko banakia bai, basakatu banakia. Horrek hemenguak dia. Hemenguak dia, ta horrek bai, badare. Beste bela banaka batzuk be badare: katagorrixak, horrek... satanderia be asko hemen, satanderia be bai. Hori izugarri dao. Bela batzuk; miru batzuk be azaltzen

dia. Lehen beste ez. Lehen hemen, ba, nola oilluak kanpuan ibiltzen zian, beti txitxak harrapauta eruaten oskun. Oillolokak ibiltzen zian txita taldiekin, oillolokak kanpuan txita taldiekin, ba, hamalau txita, hamabost, hamasei edo dana dala. Bi oillok etaratako [danak] ipinitta hogei-hogeta bost igual, ta hola. Ta mirua listo. Harek etortzen zian hor Irimo mendi haundi horretatik, eta hartu ta [ospa] txitak. Hortan hemen [bihelekua eitten] zan, txita asko eruaten oskun. Ta oin gutxi dao, oin gutxi dao mirua, baiña gustora ikusten dittut bai belak eta honek, miruak. Oso-oso gustora ikusten dittut, zeatik hona ixa ezkutatzeraiño egon gara, ta [oso gustatzen jat]. Horrek ondo [ikusten dot].
- Ba, satanderiak be kaltiak eitten zittuen, ez?
- Bai, satanderiak be kaltia eitten dau, bai. Horrek frutia [...] zeban. Hemen, pasatzen dana, intxaur denporan ta hurrak, ta hori jausi eitten da lurrera eta batzaillia azkar ez badabil, gabian horrek karriatzen dabe. Horrek karriatzaille gogorrak izaten dia. Horrek almazenak eukitzen dittue negurako horrek pillak eitten dittue sasipetan ta. Bai satandera ta horrek hurren intxaur artekua pillak eitten dittue. Ta jan ta hondatu ta asko, asko. Baiña fallua, danak esaten dabe, ba, gauz baten okerra ein arren, ba, beste alde baten bentaja daukala be ta bueno, batanaz beste...
- Eta subak eta ez dia egongo, ez?
- Gutxi, suba gutxi dao hemen. Bai, suba gutxi. Egon bai, e! Hemen gehixen-gehixen kikirixua egongo da. Nik ikusten dittutenak, behintzat, kikirixokumak edo bastante ikusten dittut oin. Kikirixua, kikirixua bai. Hori, ba... Horrek lurrai lagundu eitten jao; lurreko mamorruak, zerak --askotan kalte eitten dabenak, gaiñera, batzuk-- ta horrek... hortik bizi da hori. Horrek garbitzen dittu kikirixuak. Kikirixua bastante...

16. Ehiza kontuak

- **Erref**: ANT-008/016
- **Iraupena**: 0:04:06. **Hasi**: 00:17:32. **Bukatu**: 00:21:38
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:
Ehiza kontuak. Aita ehiztari amorratua. Azken urteotan asko gutxitu da ehiza. Zozo eta birigarro oso gutxi ikusten dira. Gutxitzearen arrazoiak.

Transkripzioa
- Baiña ez dao, ez dao hemen, kaza gutxi dao hemen. Lehen bai. Nere aitta kazari gogorra zan.
- A, bai?
- Bai.
- Ez nekixan ezer...
- Orduan kazaririk ez zeuan hemen, auzo danian gure aitta izango zan bakarrik. Bai. Ta Antzuola danian be oso gutxi, igual esku bittako bihetzekin kontatzeko beste igual Antzuola [danian] kazarixak orduan. Ta, klaro, basarrikuak eukitzen dabena. Erbixak gabaz jaten zeban, ta markau eitten zeban jandako [alpapetan], ibilittako lekuan ta jandako lekuan. Ta harek moztuta lagatzen zeban. Ta gero satsa be han eitten zeban; "tantuak" esaten jao erbi satsai, "tantuak". Ta han lagatzen zeban satsa be. Ta gero, erbixai gustatzen jakon paraje airosua gordetzeko, eguna gordetzeko ta lo

eitteko, egunaz lo. Horrek gabaz ibili. Ta ya gure aitta zanak esperientzia hundixa eukitzen zeban, oso entendidua zan hortan. Ta harek gitxi gorabehera han etxeko [alpapetan] jaten zeben erbi harek jakitten zeban ehun metro kuadron barruan, gutxi gorabehera, erretirauta nun zeren. Eta kaza denporan, ba... Erbi asko jan giñuan guk, asko erbixa. Oillagorra ta danetik, gure gazte-denporan danetik. Kaza asko jaten zan gurian orduan. Orduan bai. Orduan, hamen, ze esango dotsut, ba, nik? Gure etxe inguru hontan igual hogeta erbixak igual egongo zian hementxe, hementxe bueltan.
- Ba, gero semiak bat be ez zate kazarixa, ez?
- Ez, ez, [gurian ez dabe kasorik ein]. Ez, oin gure biharrik ez dao, badao nahikua.
- Bai, bai...
- Badao nahikua.
- Bai, gehixegi.
- Bai. Ya gauza danak eukitzen dabe eren tamaiño bat. Ta ni ez naiz kazarixen kontrarixua ta ez besteik, baiña pentsatzen jat gehixegira jun dala, gehixegira jun dala, zeatik [egun] entzuten dittuzu, ba, sei-zazpi tiro ta batera. Eta ya horrek garbittasuna eitten dabe. Oingo repetidore horrekin garbittasun gogorra eitten dabela pentsatzen jat. Ez dao hemen, ez dao. Lehen zozua asko zan, ta ointxe punturarte edo egon da, baiña nik uste dot zozua be oso bajauta azaltzen dala --zozo-bidegarro hau, ezta?--, oso bajauta azaltzen dala. Txori txikixa bastante dao, txori txikixak bai. Hemen bertako... Gero bertan geratzen dan txori hau badao, baiña, ostian, hola, ez dot ikusten. Ez dot ikusten, ez. Konejo banaka batzuk. Hori, ba, kazarixak gero bota eitten dittue hemen eperrak, konejuak bota eitten dittue. Ta gero, botatako batzuk eta... Ikusten dia, tenporadetan ikusten dia eren umiak-eta, ta umiak eta jaten ta hemen be batian-bestian azaltzen dia, ikusten dia. Baiña nik ez dakit, ba, ez dan parajia horrendako edo, gero aurrera ez dot uste ugeltzen danik hori. Ugeldu apenas eitten da. Ez dot ikusten nik hola. Ez dot ikusten hola [doienik hazten]. Gero, ba, oin dana kimikia dala, oin dana benenua bihar dozu. Porrua konserbau bihar badozu, benenua bihar dozu; patatia konserbau bihar badozu, benenua bihar dozu; bestia konserbau bihar badozu, benenua bihar dozu. [...] be zenbat botatzen dan. Ta horrek, horrek be igual, holako gauzak be igual...
- Bai, labrantzia be asko kanbixau da, ez?
- Bai, bai, bai. Orduan ez zan... Orduan ez zan oin bezela hola... Generuak ez zeukan ezen gaitzik ez zeukan. Orduan garbixak zian generuak. Danak garbixak. Ez zeuan hor... Ez dao jenerorik bere kontrarixo edo bitxon bat ez daukanik, eta hori atakatzen ez badozu, harek dominatzen dau. [...] Gaur dana da horixe. Dana.

17. Bizimodu aldaketa

- **Erref**: ANT-008/017
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:21:38. **Bukatu**: 00:23:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Garia ereiteari zergatik utzi zitzaion. Bizimodu aldaketa. Baserria, kalea.

Transkripzioa
- Eta garixa eraittiari-eta zeaittik laga jakon?
- Ba, lehen esan dotena: honek ez zian parajiak. Aurretik bai. Aurretik, ba, dirurik ez giñuan bihar izaten. [Tak], urterako nahikua bakarrik. Nahikua arto, patatia [...] nahikua euki ezkeriok, ta, lehen esan dotena, beste laubost bat ardi ta txarrixa ta horrek gauzaorrek euki ezkerio, diru gutxi bihar izaten giñuan. Baiña gero, ba, garixa erein ta garixakin bakarrik ez zan ezer etaratzen. Eta ikusten zan kalian, ba, pezetia errezao zala. Ta handik zeuala [...]. Ta honek ez dia, aldapaegixak dia honek. Hemen ezin leike lanik ein. Ezin leike lanik ein. Hemen makinekin ezin leike lanik ein. Lehen esan dotena, idixekin-ta hemen. Gaur idirik ezin leike euki, karuegixak jarri dia. Holaxe, hau kaliak, kaliak kanbixau dau hau, kaliak. Eta nik uste dot, danak dia biherrekuak, bata bestiakin eruan biherrekuak, baiña Gipuzkuan ta Euskal Herrixan izen deilla industria, segi deixola aurrera be inddarra hartzen hortik libre. Kalian dirurik ez badao, basarrixan jai dao. Kaletik ein bihar da basarrixa, kaletik ein bihar da. Kalia ondo badabil, basarrixa be... Bien, hain ondo ez da ibiliko, baiña basarrixa be defendiduko da. Baiña kalia gaizki badabil, basarrixa galdu eingo da. Tripia beteko dau, baiña ez dau ezer eingo.

18. Harrobia; Sagardotegia

- **Erref**: ANT-009/001
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Lapatza baserrian sagardotegia; sagastiak.

19. Gerra garaiko bizipenak; eraso gogorrak Intxortan

- **Erref**: ANT-009/003
- **Iraupena**: 0:04:50. **Hasi**: 00:03:05. **Bukatu**: 00:07:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra garaian, familia osoa ihesi. Egoera politikoa zelakoa zen. Francoren tropak. Fronteak aurrera egin eta Elgetan gelditu zen 7 hilabetean, neguan. Intxorta mendia. Hegazkin alemanak. Bergaran Francoren artilleria. Eraso gogorrak Intxortan.

Transkripzioa
- Ba, gerra-denporan, ba, [...]. Eta bi... Ezin zian arreglau hemen, ezin zian derechak eta ezkerrekuak. Ya ikusten zan burrukia bihar [zala], burrukia bihar zan. Eta gero, ba, sublebau in zan militarra toki askotan, eta leku askotan dominau in zeban herrixak militarra. Baiña beste asko [...].

Konparaziño, hemen naparruan be, ba, triunfau ein zeban militarrak. Eta, gero, zibilla be, naparra, asko sartu zan hareana, militarreana, laguntzera. Eta horrek izen izan hona etorri zianak [naparretik]. Donostiatik sartu zian hor Bera Bidasoatik eta horrek etorri zian, nazionalak esaten jakon, Franco-n tropak etorri zian [hor] frentia [hona]. Eta, ba, gerran bi hillebete pasa zoiatzen. Eta [Lapatzako aitta zana] politiko gogorra zan. Gehixegi sartzen zan. Oin ez dao halakorik, haura gogorra zan. Eta asko […] bildurra, bildurra. Eta, halaxe, [orduan], hola politika gogorra aurrera sartuta zerenak ezkerraldetik, nola nazionalak —Franco— zetorren, juan zien ihesi, [aurrian] juan zien Bizkai aldera. Eta hara Bizkei aldera juan eta frentia geratu zan Elgetan. Ya zan hori negua, udazkena. Frentia geratu ein zan, eta geratuta ein zittuan, ba, sei bat hillabete ein zittuan Elgetan frentiak geratuta. Eta gero, ba, alde bixak preparatzen egon zian denbora horretan eta hemenguak be, Franco-n aldekuak be gogor preparau zian. Eta egon zian, egon zian demaseko, demaseko batallak egon zian. Nik batera kontauta dauzkat hirurogei abioi bistan, batera, e! Eta dana [honaxe], Elgetako Intxorta mendixan, hor zeren, hor zeuzken, zerak, gudarixak zeuzken trintxerak, fortifikauak, ondo […]. Eta hirurogei ikusitta nao batera. Eta horren… Vitorixatik etortzen zien horrek abioi danorrek, baso paretatik, jeneralian, herrittatik-ta aparte etortzen zian, baso-paretatik. Harek ekartzen eben zelako urruñia. Haren urruña-zaratia entzuten zan. [Txori-…] esaten jaten, aleroidunak zian abioi harek […]. Eta etortzen zien […] karga-karga inda bonbaz etortzen zien, ta hementxe pasatzen zien baso honetatik, hemengo […] paretik, “da!” Elgetara sartzen zien ta Eibar zeuan gudarixen mendian ta Elgeta be bai, Elorrixo be bai… Eta hor egon zan egun baten, ba, ya bagenkixan ze egunetan izen biher zeban, egualdi onai begira zeren atakia emoteko hemengo francotarrak. Eta bagenkixan, ta ixo giñuan mendira. Bista-bistan Intxorta euki giñuan, Elgeta bista-bistan danok holaxe euki giñuan. Eta hauraxe izen zan puntua hemen Franco-k gogor […]. Baiña hemen [onduan], orduan hemen mendi gaiñian Elgeta bistan [asko… jako], hor bagenden, bagenden gutxien-gutxiena [tropel inguru baten] ehun lagunetik gora genden. Eta neu berakin juan nitzan, nere onduan zeuan ama bat hementxe auzokua gudarittan zeukan seme bat. Eta beste bi Franco-kin zeuzkan. Eta pentseizu, bazekixan, gaiñera, Intxortan zeuana bere semia. Baiña haura zan… Baiña dana sutan, e! Bergaratik, artillerixia zeuan Franco-na Bergaran, ta abioiak goittik, goittik abioiak eta behetik kañonazoka, Elgeta, Intxorta, horrek danak sutan! Intxorta ipini zeben dana jo-ta labrauta! Aurretik mendi berdia ta zera zana dana lur-gorrittuta ipini zeben. Ta […] egun haretan ez zan ezebe mobidu. Hartan pasau zan eguna. Baiña hurrengo goizian goizao —militarran taktikak, ezta?—, hurrengo goizian goizao, sartu hor Otxandixo aldetik, ostekaldetik, soldauak eta “tak!” sartu zian Intxortara. Ez hemen, hemengo partetik ez [bada eze], atzetik junda. Eta, orduan, ba, [ustez uste barik pasau jaten] neri aurreko egunian. Nik auzoko gudari horri —gero gurekin hemen beti izen zan, ta— entzun notsan sekula —berak frente dana pasau zebala, hasi hemen ta Asturiaseraiño, baiña— ez zebala ikusi Intxortan egun haretan zan beste hilddako eta herido. Eta, badakizu, orduan, gudarixak, ba, pasada haundixa hartuta, eta hurrengo egunian, ba, egongo zian [ustez uste barik]. Eta soldauak sartu jaten ostetik bueltan eta “ra!” ihesixari emon bihar izen [… alde hontara]. Bai. [Nik horixe dakit].

20. Frantziara ihesi gerra garaian

- **Erref**: ANT-009/005
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:09:30. **Bukatu**: 00:11:45

- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
1938ko udaberria. Francoren tropak; erregularrak. Antzuola, Bergara inguruan artilleria. Familia Frantziara ihesi.

Transkripzioa
- Ta gero, ba, esan doten hori, udaberri hortan jo zeban berriz hemen Franco-k... Hemen tropa asko sartu zan. Franco-k zeuzkan Afrikan [erregularrak] esaten jatenak. Horrek zien marrokixak. Hemenguak [be bai] Ni tropa horretan [...] soldau. Hemenguak, españolak eta marrokixak, ta zien Espaiñian ejerzitua zan hori be legiñuan antzera, ezta? Eta horrek be asko egon zian hemen, frentia apurtu ta aurrera eitteko. Ta italianuak be bai; artillerixia asko ta asko italianua zan. Bergaran [egon] zan, ba, Antzuolatik Bergarara, hor kamiño ingurutan traktoria ta kamioia ta kañoia izugarri. Eta gero, ba, apurtu zan Elgetako frentia ta, ba, aurrera ta aurrera ta aurrera ta estutzen. Ta honek [... aitta hil], amakin, umi... danak anaiok estutzen, estutzen, ihesi, aurrera, galdu. [Behixak] be azkenian galdu, umoria be galdu, dana galdu... Kendu [...], rekisau. Eta [danok] be galdu. Azkenian, azkenengo muturrian, ahal dan moduan enbarkaziñon batzuk hartu eta Franziara pasau zian. Ta honek bezela milla [...], millaka igual. Eta gero, itsasuan ikusi [...] zeben gerrako barkon bat Franco-na eta estu ta larri, kañonazon batekin danak hundiduko ete zittuen. Baiña ez, horraittio, ba, ikusi dana umia-ta soldaua ez zana ta hala Frantziara pasau zian. Pasau Frantziara, [...] berriz Espaiñiara. Euskal Herrixa dana Franco-na. Ya norteko frentia akabauta; geratzen zan bakarrik Levante, Barcelona, frente de [...]. Horixe geratzen jakon bakarrik Franco-ri, Barzelona, Kataluña. Gero [Franzitik espulsau, berriz. Nora juan? Bueno, ba, bueno, Barzelonara]. Geronara pasau zian, [...]. Han Geronan, han [...] eta azkenengo Franco-n tropak, uste dot, hantxe prisionero in zittuela. Haintxe in zittuen prisionero.

21. Esaera zaharrak

- **Erref**: ANT-037/002
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:02:00. **Bukatu**: 00:04:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:
'Kandelario bero, negua gero'; 'Goizeko oskorriak, iluntzeko iturriak'; eta beste esaldi zahar batzuk.

22. Ostadarra edo ostarkua

- **Erref**: ANT-037/003
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:04:00. **Bukatu**: 00:06:06

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Ostarkua esaten diote ostadarrari Antzuolan. Sulfatadorarekin lanean ere ateratzen da ostarkua. Apirileko trumoia, berrogei eguneko trumoia.

23. Okaran ondoak elurraren beldurrez

- **Erref**: ANT-037/005
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:09:20. **Bukatu**: 00:10:42

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Etxeko okaran ondoak zabaltasun handia hartu dute, eta ale asko ematen dute, baina hurrengo elurteak apurtuko omen dituela dio Tomasek.

24. Txertatutako fruta-arbolak

- **Erref**: ANT-037/009
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:14:57. **Bukatu**: 00:16:15

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Erautza baserritik aspaldi ekarritako okaranak dituzte. Basoko hurra oso txikia izaten da. Txertatu gabeko sagarrak ere oso koskorrak dira; kuku-sagarrak esaten diete.

25. Artilezko koltxoiak

- **Erref**: ANT-037/013
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:32:00. **Bukatu**: 00:34:21

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Artilearekin egindako oherako buruko eta koltxoiak erabiltzen ziren lehen. Astunak direlako eta lan asko ematen dutelako, gaur egun baserrietako ganbaretan daude. Artileak berak ere jada galdu du bere balio ekonomikoa.

26. Arto-malutekin betetako koltxoiak

- **Erref**: ANT-037/014
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:34:21. **Bukatu**: 00:37:35

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Artilearen aurretik, arto-maluta erabiltzen zen koltxoiak betetzeko. Maristak ere etortzen ziren arto-maluta eske.

27. Bizitzeko garai gogorra

- **Erref**: ANT-037/016
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:43:25. **Bukatu**: 00:45:30

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Garai hartan Antzuolako bizimodua gogorra zen. Lau larru-lantegi zeuden, eta jornal eskasak. Gurdiak errepideetan, eta ganaduak eta txerriak kale-baserri guztietan. Okela zezinatuta gordetzen zen.

28. Ermandadearen lanak

- **Erref**: ANT-037/017
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:45:30. **Bukatu**: 00:47:01

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Erditzen hil edo gaitz batek jota ermandadean hiltzen ziren ganaduen okela, ermandadeko kideen artean banatzen zen. Gero zezinatu egiten zen.

29. Inguruko errotak; etxeginak

- **Erref**: ANT-038/001
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:30

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Lanbideak » Etxeginak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
Erroten inguruko kontuak. Igeltseroak; arotzak; e.a. Ez zegoen lanerako ordurik eta kobratzen jakin ez.

30. Meteorologiaren inguruan zenbait argibide; lexikoa

- **Erref**: ANT-038/004
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:05:25. **Bukatu**: 00:08:50

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Aiñubia; Laiotza. Meteorologia: Eguraldi lardatxa; lanbraztia. Xirimiri, kanpotik ekarritako berba. Landuria. Oskarbi.

31. Meteorologiaren inguruan zenbait argibide; lexikoa

- **Erref**: ANT-038/005
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:08:50. **Bukatu**: 00:10:30

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Edur-mataza; edur-maluta. "Edur-kixixa".

32. Meteorologiaren inguruan zenbait argibide; lexikoa

- **Erref**: ANT-038/006
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:10:30. **Bukatu**: 00:11:40

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Haize klaseak. "Sorgin-haizia". Hegoia, napar-hegoia; ifarra; e.a.

33. Meteorologiaren inguruan zenbait argibide; lexikoa

- **Erref**: ANT-038/008
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:12:55. **Bukatu**: 00:14:20

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Meteorologia. Mendebala.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-15

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com